



Bigarren fasera bidean

Denda eta terrazak zabaldua, lehenengo fasea normaltasun berrirako urratsa izan da. Hurrengo orduetan jakinaraziko dute astelehenetik aurrera bigarren faserako jauzia emango dugun.

4

AHTaren aurkako manifestazioa Atxondon, etzi

Atxondo | Manifestazioa domekan izango da, 12:30ean, Apatako plazan irtenda. Segurtasun neurri guztiak hartuta egingo dutela jakinarazi dute antolatzaileek.



ESKAINTZA BEREZIAK

Ekainaren 30era arte

DESKONTUAK eta OPARI BEREZIAK

Hartu hitzordua: info@schmidt-abadiano.com

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen





Joseba Bikandi
Bikandi
Mikrobiologoa eta
EHUko irakaslea
Durango | 1967

“Urtea amaitu baino lehen txertoa prest egon daitekeen esperantza dut”

Joseba Bikandi mikrobiologoa da, eta irakaslea EHU. Koronabirusaren inguruko aktualitateari buruzko azalpenak eman ditu: txertoaren ikerketak, tratamenduak, talde immunitatea, hartu beharreko babes neurriak,...

DURANGO • JONE GUENETXEA

Koronabirusaren aurkako txertoaren inguruan aurrerapausoak eman dituztela dirudi. AEBetan txertoa urte amaierarako egon daitekeela diote. Ildo horretatik, badugu pozik egoteko arrazoirik?

Moderna enpresaren ikerkuntza ondo doala dirudi. Ikerketaren hirugarren fasea uztailean hasiko dutela diote. Hala ere, hirugarren faseak atal bi ditu eta ez dakit bietako zein hasiko duten. 6.000 pertsona ingururengan probatuko dute txertoa. Emaizak errepikatzen badira, txertoa nahiko gertu egongo da. Beste kontu bat da txerto hori guri noiz heltzen zaigun. Orain egin dituzten probetan, emaitzak 43 egunetara aztertu dituzte pertsonengan. Horrek esan gura du gauzak luze-rako doazela. Oraindik ez daki-gu noiz komertzializatuko duten. Bestalde, kontuan izan behar da txinatarrak ere oso aurreratuta dabilzala. MOEk apirilaren 26an argitaratu zuen 89 txerto-proiektu zeudela martxan. Baina zazpi baino ez zebiltzan gizakiekin esperimentatzen. Moderna enpresarena da horietariko bat. Urtea amaitu baino lehen prest egon daitekeen esperantza dut, baina banaketa ez da populazio guztira aldi berean etorriko. Gu ez gara lehenengoak izango. Beste kontu bat da txertoa prest dagoenean nori eman lehenengo, nagusiei eta osasun arazoak dituztenei ala beste batzuei. Ezin dugu ahaztu hil direnen %95ek arazoak izan dituztela aurretik. Baina hor erabaki politiko eta ekonomikoak sartzen dira, ez bakarrik medikoak. Bestalde, egoera honek txertoen alde egiteko balio izatea espero dut, eta antitxertoak baztertzea.

Posible da txerto bat baino gehiago komertzializatzea?

Posible da txerto bat baino gehiago izatea eta horiek erabilera ezberdinak izatea. Bakoitza ikerketa mota bat egiten ari da. Mutazioen ondorioz txertoagaz arazoak izan daitezkeen jakitea da kontua. Ikerketa batzuk koronabirus bat baino gehiago harrapatzen dituen txertoaren bila dabilza.

Gaixorik daudenentzat badago tratamendu espezifikorik?

Oraindik ez da sortu birus honetzako tratamendurik. Hau da, eman eta sendatu egiten zaituena. Tratamenduak egon, badaude. Lehen, pandemiaren hasieran ospitalera joaten zirenak proportzio handiagotan joaten ziren zaintza berezietara orain doazenak baino. Ikasi egin da tratamenduak ematen. Ez dituzte tratamendu berdinak ematen infekzioaren fase batean edo bestean. Batzuk ez dira birusaren aurka; birusak larri jartzen diren

pazienteengan eragiten duen hantura-erreakzioa indartsua edo biriketean eragiten dituen (mikro)tronboak ekiditeko tratamenduak dira. Badirudi bada-goela eraginkorra izan daitekeen antibiriko bat, baina oraindik ez dago behar den moduan testatuta. Orain, infekzioak berriro ugaritzen badira, medikuek askoz ere jakintza handiagoa izango dute infekzioari aurre egiteko. Kontua da ostipaleak ezin ditugula saturatu, hori gertatuz gero tratamendurik jaso ezin duten pazienteak egon daitezkeelako.

Talde immunitatearen inguruan estatuan egindako azterketak azaldu duenez, %5 izan dira infekzioagaz kontaktua izan dutenak. Gehiago izan zitezkeela uste zuten adituek?

Aurrez egindako estimazio batzuetan %15 izan zitezkeela uste zen, baina errorearen margena oso zabala zen. Sorpresa izan da uste zena baino gutxiago izan delako, hau da, antigorputzak zituztenak pentsatutakoa baino askoz gutxiago izan dira. Birusa jende gutxik pasatu badu eta jende askok birusaren aurka babesik sortu ez badu, horrek esan

“**Maskara erabiltzen badugu babesa gehitu egingo dugu, baina maskara bakarrik ez da nahikoa**”

gura du infektatu daitezkeen kopurua oso handia dela. Talde immunitatea noiz sortzen da? Infekzioa pasatu dutenen kopurua handia denean eta aukera gutxiago dagoenean pertsona batek beste bat infektatzeko, inguruan immunizatuta dauden pertsonak dituelako. Ez badago jenderik immunizatuta, infekzioa duenak askoz ere errazago transmitituko du birusa.

Norberak hartu beharreko babes neurriak zorrotzen ari gara. Maskarak jartzea garrantzitsua da? Sentsibilizatzen ari gara?

Maskara erabiltzen badugu babesa gehitu egingo dugu, baina maskara bakarrik ez da nahikoa. Distantziak mantentzea, eskuak garbitzea... Horrek gelditzen du transmisioa. Itxialdian zehar, transmisiorik gehien familia barruan gertatu da, eta orain familia berriak kutsatzeko arriskua gehitu da. Esaterako, elkarregaz bizi ez diren gazte asintomatiko bik elkar musukatzen badute, ez dabilza distantzia neurriak mantentzen eta familia berriak kutsatu daitezke. Horrelako gauzak saihestu beharko genituzke.

Hainbat eraso matxista salatu dituzte eskualdean

Ertzaintzak gizonetzko bi atxilotu ditu aste honetan Durangaldean, indarkeria matxistako delitua egotzita

DURANGALDEA • A.M.

Hainbat indarkeria matxista kasu gertatu dira beste aste batez Durangaldean. Martitzen iluntzean Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen Durangon, bikotekide ohia mehatxatzea leporatuta. Durangoko Udalak gogor gaitzetsi zuen gertaera, eta emakumeari babes osoa eskaini zion. Horrez gainera, mugimendu feminista deitzekoa zen mobilizazioan parte hartzea deitu zituzten herritarrak. Durangon bertan, emakume talde batek alderdi popularreko zinegotzi ohi bat publikoki salatu zuen. Terrazan zeudela, "goitik behera" grabatu zituela salatu zuten. Ondoren, Ertzaintzak 53 urteko gizona atxilotu zuen, agente bat jotzen ahalegintzea leporatuta.

Egoera honen aurrean, DAFak kontzentrazioa deitu zuen egunerako. Bestalde, Andereak elkarteak berriro ekingo die eguenetako elkarretaratzei. Zapatutik domekarako goizaldean, Ertzaintzak beste gizonetz-

ko bat atxilotu zuen Abadiñon, bere bikotekideari eta senitarterko bati eraso egitea leporatuta; Ertzaintzako iturrien arabera, atxiloturiko gizonak ertzain bati ere eraso egin zion. Gertaera salatzeke, Abadiñoko mugimendu feministak kazeroladara deitu zuen martitzenerako. Udalak ere gogor gaitzetsi zuen gertaera.

Mugimendu feministak mobilizazioak egin ditu eraso matxistak salatzeke helburuagaz

Martitzen iluntzean, dozenaka zaldibartarrek elkarretaratzea egin zuten udaletxe pareko plazan. Dominika talde feministaren esanetan, gizon batek emakume baten "espazio intimoa inbaditu" zuen haren etxeke atarian.



Eraso matxista Traña-Matienako biribilgune honen inguruan gertatu zen.



Dozenaka herritar bildu ziren Zaldibarko kontzentrazioan.

Elkarlanean dihardugu.

Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu.

Garapenerako lankidetzarako euskal eragileak.



Durangaldeko herritarren artean gogoa eta zalantza nahasten dira deseskalatzearen bigarren fasea hasteko

Eskualdean eguneko menuak eskaintzen dituen jatetxe bateko arduradunak bigarren fasean bere negozioa zabaltzeko zalantzak dituela azaldu du



ko ondo" ari dira ezohiko egoerari aurre egiten. "Ondo ari gara saltzen. Loreak, landareak, terrazarako gaiak. Ikusi dugu jendeak baduela loreenganako beharrizana. Alaitasuna behar dute eta loreen koloreek hori ematen dietelakoan nago. Aurrekoan bezero batek esan zidan eskertzekoa dela erakusgai ditugun loreek ematen dioten alaitasuna. Gainera, udaberri eta uda sasoiaren egoteak mesede egin digu", azaldu du Marina Bidasoro Zengotita lore-dendako arduradunak.

"Oso urduri nago. Otorduei berrekiten badiegu ez dakit zein erantzun egongo den"

Durangaldeko herritarrek bigarren faseari ekiteko prestatzen dabilta. Besteak beste, tabernek, jatetxeek, antzokiek eta zinemek izango dute ateak zabaltzeko aukera, betiere gehieneko jende kopuruaren erdiagaz eta beharrezko babes neurriak hartuta. Bien bitartean, maskaren erabilera orokorra agindu du estatutak.

Maskara erabiltzea derrigorra izango da metro bi baino gehiagoko distantzia bermatu ezin den kasuetan.

DATUAK • EKAITZ HERRERA

"Oso-oso urduri nago. Otorduei berrekiten badiegu ez dakit bazkaltzarrek zein erantzun emango duten, ezta babes neurriekin zelan portatuko diren. Bederatzi langile ditut jatetxean, eta sukaldaria eta beste behargin batzuk aldi baterako erregulaziotik atera beharko nituzke, eta ziurgabetasun handia sentitzen dut". Eguneko menuak, karta eta asteburuetako menuak eskaintzen dituen Durangaldeko jatetxe bateko arduradunagaz berba egin du

ANBOTOK. Berak gurago izan du izenik ez eman, baina onartu du zalantza beteta dagoela bigarren faseari heltzeko. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak deskonfinatzearen bigarren fasera pasatzeko eskaria egin dio asteon Espainiar Estatuko Osasun ministerioari. Jaurlaritzaren ustez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako egoera epidemiologikoa eta asistentziala "ona" da, eta hori erakusten dute aste honetako osasun indizeek. Edizio hau ixterako,

baina, Espainiak jakinarazi barik zuen bere erantzuna. Eta ziurgabetasun horren erdian harrapatu

"Ikusi dugu jendeak baduela loreenganako beharrizana, alaitasun eta kolore beharrizana"

ditu hainbat ostalari eta jatetxe arduradun. "Ziurgabetasun horri,

gainera, gehitu behar zaio estatua moldaketak egiten ari dela gizarte-segurantzako baldintzetan, eta gehiago ordaindu beharko dugula. Gehieneko bezero kopurua erdira murriztuta, merezi digu karta eskaintzea? Jeneroa galdu egingo da? Akaso alde aurretik egin beharko liriteke erreserbak?", dio jatetxe arduradunak.

Egoera baikorragoa da beste arlo batzuetako komertzioetan. Durangoko Zengotita lore-dendan, "nahi-

Ibilaldia, urrian

Elorrioren maiatzaren 31n egitekoa zen Ibilaldia urriaren 18ra atzeratu dute. Egun berean ospatuko da Araba Euskaraz jaia, Amurrion. Irailaren 20an Herri Urrats izango da, Senperen, eta urriaren 4an Kilometroak, Villabona-Amasan eta Zizurkilan. Nafarroa Oinez jairik ez da egongo aurten. Lizarran egitekoa zen. "Udazkenara begira jarri gara, eta aukera ikusten dugu jaiak egiteko. Ez dugu etsi nahi", azaldu du Ikastolen elkarteak.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko maiatzaren 22a
18. urtea - 808. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Nor bait kutsatuz gero, kartzela osoa kutsatuko litzateke; preso asko beldur dira horregaitik”

Espetxe zigorra osorik bete eta gero, maiatzaren 2an Picassent (Valentzia, Herralde Katalanak) atzean utzi eta etxera itzuli zen Aitziber Coello; Haitz semeagaz etorri da

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Hogei urtean etxetik kanpora egon eta gero, Aitziber Coello Onaindia (Durango, 1979) Durangon dago berriro. Azkenengo hamasei urteak kartzelan egin ditu, eta itzultzeko sasoi arraroa egokitu zaion arren, pozik dago berriro etxean eta etxe-koen artean, egoera berrira ohitzen. "Errazagoa da etxera ohitzea kartzelara baino", dio pozik.

Izan duzu aukerarik Durangotik eta lurretatik bueltatxo bat emateko? Zelan aurkitu dituzu?

Bietan egoteko aukera izan dut, eta oso aldatuta aurkitu ditut. Oso politikak, nire iritziz, baina aldatuta. Jendeagaz ere egon naiz kalean, eta arraroa egin zait. Gogo itzela dut lagun eta senideak ikusi eta besarkatzeko, baina oraindino itzarotea tokatzen da.

Kalean eta kartzelan bizi izan duzu osasun krisialdia. Alde handia dago?

Desinformazio itzela dago eta ez dira beharrezko neurriak hartzen. Esaterako, kalean ez dago arazorik maskarak erosteko; farmazia batean ez bada, bestean, baina espetxean ez dago horrelakorik. Orain ez dakit, baina lehenengo egunetan funtzionarioei ez zieten eman ez maskararik, ez eskularrurik, ez gelik. Nor bait kutsatuz gero, kartzela osoa kutsatuko litzateke, eta normala den moduan, preso asko beldur dira.

“Kalean maskarak erosi ditzakezu; farmazia batean ez bada, bestean. Kartzelan ez dago hori”

Euskal presoek asteak daramatzate aurrez aurrekorik barik, eta mugikortasun mugatuak irauten duen bitartean horrela jarraituko dute. Zelako eragina du horrek presoengan?

Presoak kaleagaz duen hartu-eman bakarra telefono bidezkoa da orain. Zortzina minutuko hamabi dei astean. Horrez gainera, kontuan hartu behar da beharrezkoa den arropa jasotzen dela bisitetan. Senide eta lagunak barik presoak ezin dio espetxeko kargari eutsi. Une

honetan ere salbuespenik ez egitea oso gogorra da, presoek eskubide hori ere zapaltzen da, senideek ezin dutelako beste probintzia batzuetara bidaiarik egin.

Hamasei urteotan zu ere dispertsatuta egon zara. Zelako zama da hori etxe koentzat?

Zama ekonomiko handia da, baina fisikoa eta psikologikoa da, batez ere, betiko markatzen zaituena. Oso gogorra da astebururo urte luzez ehunka kilometro urduri egin behar izatea, 'garaiz helduko naiz?' 'Zelan egongo da?', buruari galde-tuz une oro.

“Dispertsioa zama ekonomiko handia da etxe koentzat, baina fisikoa eta psikologikoa batez ere”

Ama izan zara kartzelan. Prest daude kartzelak horrelakoetarako?

Ez. Kartzela pertsonak zigortzeko lekua da. Humanoagoak izan daitezkeen pertsonak egon arren, orokorrean kartzelan ez da existitzen humanitaterik. Edozein erabaki hartzeko, sistema edo euren segurtasuna lehenesten da, beti. Eta, modu horretara, aita hainbat hilean egon daiteke umea ikusi barik. Edo amak espetxetik irten behar badu, ospitalera edo epaitegira joateko, adibidez, beretzat ezezaguna den beste preso batez geratuko da umea, kidea izan zein ez, eta hor ez da kontuan hartzen umearen ongizatea.

Zu kondena agortuta, Gorka Fraile baldintzapean; durangar bi gehiago herrian. Konponbidea hurbilago dago?

Nire ustez, ez. Ikustea baino ez dago zelako egoera bizi duten gaixo dauden presoek, edo jada adin bat dutenek. Hauek askatzeko edo kondena etxean betetzeko erabakia hartu zezakeen Espainiako Gobernuak, baina ez da hori kasua. Kiderik gehienek Euskal Herritik urrun dauden kartzelatan jarraitzen dute, Levanten edo Andaluzian asko. Horregaz argi geratzen da Espainiako Gobernuaren borondatea ez dela konponbiderako pausoak ematea.



Aitziber Coello Onaindia.

DATAK

Aurrematrikula
ekainak 1etik 19ra

Matrikula
uztailak 13tik 17ra

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

AENOR R | AENOR | Kudeaketa Sistemak | 2005 | CERTIFIED | ISO 9001 | Fp | EUSKADI | LANBIDE HEZIKETAKO | EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO | DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

“Giharrek osasuntsu mantentzea onuragarria da gorputzerako”

Giharren egoerak adinekoen osasunean duen eragina ikertzen aritu da Iker Lopez, Kirolenek, Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoak, abiatutako azterketa batean



Iker Lopez Torre
Kiroleneko irakasle
eta idazkaria
**Zamudio (Abadiñon
bizi da) | 1977**

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Luzaroan geldirik egotea ez da ona giharretarako, eta arazoa larriagoa bihurtu daiteke adinekoen kasuan. Jarduera fisikoan eta kirolean lizentziatua den Iker Lopezek ondo daki hori. Itxialdiaren aurretik, giharren egoerak osasunean izan dezakeen eragina ikertzen zebilen zahar etxeetako hainbat boluntariogaz. Zoritxarrez, berak eta bere lantaldeak ikerketa bertan behera utzi behar izan zuten koronabirusa heldu zenean.

Zein zen ikerketaren helburua?

Azkenengo urteetako ikerketek erakusten dute giharren eta osasunaren artean erlazio handia dagoela. Gure esperientziatik abiatuta,

arho horretan ekarpen handia egin genezakeela ikusten genuen, batez ere biomekanikaren aldetik, hau da, giharrek lantzearen ikuspegitik. Azken batean, giharrek gorputzeko organismoko sistema guztiei ematen die babesia, eta ikusten da giharrek osasuntsu mantentzea onuragarria dela gorputzerako. Eremu horretan sakondu gura genuen ikerketa eginda.

Adineko jendearengan zentratu zenuen ikerketa.

Bai. Urteetan aurrera egin ahala, giharrek gaitasuna galtzen du, eta, berez, landuz gero galtzen ez den ehun bakarria izan daiteke, neurri bateraino. Baina, orokorrean, argi dago gorputzean ematen diren prozesuek gihar-zuntzen gaitasuna

“Koronabirusagaz intrusismo handia egon da. Nire aholkua beti profesionalengana jotzea da”

galtzea dakartela adinagaz. Horri sarkopenia deitzen zaio eta gaixotasun mota askogaz lotuta dago. Adinagaz zuntzik arinenak galtzen dira gehienbat eta horiek lotura zuzena dute osasunagaz. Beraz, zuntz mota horiek estimulatzea eta aktibatzea ezinbestekoa dela ikusten genuen,

osasunean eragiten dutelako.

Zelan estimulatzen dira zuntz mota horiek?

Zuntz arinak aktibatzeak intentsitate handiko ariketak eskatzen ditu. Jakina, pertsona nagusiekin intentsitate maila handia lortzea gax da. Beraz, kontua hau da: zelan estimulatu giharrek ahalik eta gehien, baina lesiorik eragin barik eta segurtasun marko baten barruan mantenduta.

Luzaroan geldirik egoteak eragin handiago du adinekoen kasuan?

Ariketa fisiko maila asko murriztu da itxialdian. Batez ere, oso kaltegarria izan da pisuetan bizi diren adinekoentzat. Beste kolektibo batzuk baino sentiberagoak dira horrelako egoeretan. Ariketa faltari faktore gehiago gehitu dakizkioke; esaterako, eguzki izpiei eskerrak lortzen den D bitaminaren gabezia eta horrek immunitate sisteman duen eragin kaltegarria.

Konfinamenduak eragindako kaltea errekueraezina izan daiteke kasu batzuetan?

Muskulua errekuera egin daiteke normalean, baina kasu kasuko egoera begiratu beharko litzateke. Endekapenezko gaixotasunak, esaterako, gaixotasun progresiboak dira, baina ariketa fisikoagaz eta elikadura on batezaz moteldu daitezke. Konfinamenduak horri guztiari eragin badio, gaixotasunak aurrera egin dezake eta gax da galdutakoa errekuera ezea, nahiz eta giharrek berreskuratu egunerokotasunera itzultzean.

Denbora luzean etxean egon eta gero, kalera irten eta ariketa egiten hasteraoan zer hartu behar da kontuan?

Koronabirusaren kontu honegaz intrusismo handia egon da. Ariketa fisikoak edonork agindu ditza keela ematen du. Konpetentzia profesionalik ez dutenek, esan gura dut. Nire lehenengo aholkua beti profesionalengana jotzea da. Bakoitzaren ezaugarri indibidualak kontuan hartu dituen adituagaz aritzea. Gomendio orokorrak batzuentzat egokiak izan daitezke eta beste batzuentzat ez. Aholku orokor moduan esango nuke, gazte zein adineko, apurka-apurka hasi behar dela ariketa egiten.

**Lau
hankako
mahaia**

Neskutz
Rodríguez
Herriaren Eskubidea



Eta orain zer?

Durandaldean 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetan aldarrikapen batzuk mahai gainean jarri ziren: pediatria 24 ordu, ZIU anbulantzia mugikorra, larrialdietako langile kopurua handitzea eta airearen kalitatearen azterketa integrala.

Orduan, alderdi guztiek babesu genituen Eusko Jaurlaritzaren aurrean neurri horiek bultzatzea. Kanpainan babestu ez ezik, inbestidurarako negoziazioetan ere parte izan ziren.

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak bakoitzak bere programan generamatzan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzari gobernu-talde gisa egin genizkion lehenengo eskaeretakoak izan ziren, isiltasuna lortuz erantzun gisa. EAJk, bestalde, Eusko Jaurlaritzak osasun zerbitzuen hobekuntza bultzatzea eta airearen azterketa egitea eskaini zigun, inbestidura erraztearen truke.

Orain, Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeetarako, gaurkotatuta dute berriro.

COVID-19ak eragindako osasun krisiak agerian utzi ditu Osakidetzan azken urteotan izan diren murrizketak eta baliabide falta, bai eta osasun zerbitzu integralak izatearen garrantzia ere, kolapsoak saihesteko eta behar bezala artatzeko.

Birusak airearen kutsadurari "arnasa" eman dion arren, ez zaigu ahazten duela 100 egun baino gehiago Zaldibarko zabortegea erori zela. Oraindik bi langile lurperatuta daude eta ez dizkigute argitu kudeaketan zeuden irregulartasunak eta egon ziren gasurketen eta -ihesen ondorioak.

Uztailaren 12ari begira jarrita, inoiz baino beharrezkoagoa da bi gai hauek erdigunean berriz jartzea: osasun publikoan inbertsio handiagoa egitea eta Zaldibar Argitu, ondorio guztiekin.



ALBERDI
HARATEGIA



Egiguzu nahi duzun eskaera telefonoz eta zu zatozenerako prest izango dugu, Durangon zein Zornotzan. Ez duzu ilaran itxaron beharko.

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

“Beharbada bizitzaren eta heriotzaren garrantziaz jabetzea ekarriko digu koronabirusak”

Iñaki Loinazek abade lanak egiten ditu San Faustoko eta Durangaldeko hainbat elizatan. Egunotan dolua egiten lagundu die koronabirusak hildako herritarren senideei. Ohikoa duen umorea eta gertutasuna lagun, gertatzen ari denaz gogoeta egin du. Instituzioenganako kritikak ere baditu.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Koronabirusak heriotzaren aurpegi-krudelenetariko bat erakutsi digu. Agur esateko aukerarik barik hiltzen ari dira gertukoak.

Bizitzen gabiltzan egoera konplexua da. Berria, orain arte ezagututakoaren aldean oso-oso bestelakoa. Beharbada bizitzak eta heriotzak duten garrantziaz jabetzea ekarriko digu egoera honek. Ematen du gizarteak ahaztu egin duela, edo ez dela akordatzen, heriotza arnasa hartzea bezain naturala dela. Ezkutuan mantentzen dugu eta gertutik kolpatzen gaituenean konturatzen gara gauzak txarto egiten ditugula. Hor kokatzen da dolua, maite ditugunak agurtzeko egiten dugun prozesuan. Egun hauetan ez dugu mezarik eman. Ez dugu elizkizunik egin. Baina hainbat familiak deitu digute tanatoriora edo hilerrira haiekin joateko eskatzeko. Denek zuten ezaugarri komun bat: senideak agur esateko aukerarik barik hil diren tristezia, bakarrik hil direla pentsatzeak eragiten duen mina. Herritar batek honako hau esan zidan aurreko batean, konfinamenduaren fase aldaketa horietariko batean: "gure ama eskuekin ukitzea lortu dugu". Pentsatu zein detaile gogorrak diren. Heriotza berez bada zaila, are eta zailago da egoera honetan.

Osasun agintarien esanetan, adinekoak izaten ari dira koronabirusaren biktima nagusiak.

Bai. Dena dela, iruditzen zait Durangaldean ez dela beste toki batzuetan bezainbeste jende hil. Nire lana min zuten horien bihotza ordenatzen laguntzea izan da egun hauetan. Eta ez abade modura bakarrik. Izan ere, heriotzaren aurrean agertzen dira bestearenganako esker ona, barkamena, heriotzaren aurrean garrantzitsuena bizitza izan dela azpimarratzea,... eta hain-



Iñaki Loinaz Urien
Abadea
Durango | 1966

beste kostatzen zaigun 'maite zaitut' esate hori. Oso enpatikoa naiz eta asko sufritzen dut alargunen bat edo seme-alabaren bat minez ikusten dudanean. Haren ondoan nagoenean inpotentzia sentitzen dut. Haiek animatzeko zer esan jakin ezinda egoten naiz. Kristauok Jesukristo dugu, baina denok dugu bizitza goraiatzeko beharrezana. Alde horretatik, heriotzak bizitza deskubritzen laguntzen dit.

Heriotzak bizitza deskubritzen laguntzen dizula diozu.

Halaxe da. Badakizu hilko zarela, eta aukera bi dituzu: bizitza osoa etxean sartuta eta deprimituta

ematea, edo ahal duzun ondoen bizitzea. Hilko bazara, bizi, zeren eta zure ametsak hemen geldituko dira hiltzen zarenean.

Fededuna izan ala ez, koronabirusa eragiten ari denak utziko ote digu ikasgairik?

Beharbada txotxolokeria bat irudituko zaizu esango dizudan hau, baina ateratzen nabilen ondorioa da aurrerantzean ez garela ez hobek ez txarragoak izango. Egunotako jokabideak gu garenaren isla baino ez dira. Gure barrenean jokabide solidarioak daude, jokabide egoistak bezainbeste. Argi ikusi dugu pandemian zehar. Ikusi

dugu besteei laguntzeko herritarrek duten prestutasuna. Eta ikusi ditugu besteengan pentsatu barik egindako erosketa konpulsiboak. Konfinamendua errespetatu ez duten herritarrak ikusi ditugu. Eta baita horiek seinatu dituztenak ere. Baina gero, egoerak hobera egin duenean, dena ahaztu dugu. Eguraldi onagaz, zerbeza pare bategaz eta lagunekin egonda, akabo koronabirusa eta konfinamendua. Beraz, zein den ateratzen dudana ondorio? Bada, horrelakoak garela. Alde ona dugula, alde txarragoa dugula, eta biekin bizitzen ikasi behar dugula.

Egoera honek utzi dezakeen ondorio sozioekonomikoak kezkatzen zaitu?

Dudarik barik. Telebistako albiste-
giak ikuste hutsak ikara sortzen du. Gertatzen dena da hor betiko arazo bategaz topo egiten dugula. Goazen gauzak diren moduan esatera: elizari inkisizioa, gurutzadak eta halakoak leporatu izan zaizkio. Bai. Ez dut defendatuko defendatu ezin daitekeena. Baina gero, ekintza sozialera bideratutako egitasmorik gehienak elizari lotuta daude. Zer-

“**Ateratzen nabilen ondorioa da aurrerantzean ez garela ez hobek ez txarragoak izango**”

gaitik? Ernegatu egiten nau kolore bateko zein besteko udal eta gobernuak gai sozialeko duten ardura apurrak. Trataera sozialak, azpikontratazioek... Jende ilarak egon behar dira Caritasen eta JAEDen? Ala zerbitzu horiek estatuak, Eusko Jaurlaritzak edo dena delakoak eman behar litzuzke?

Itzuliko dira mezak fase honetan?

Astelehenean hiletekin ekingo diegu, eta maiatzaren 31n mezei. Gel hidroalkoholikoa ipiniko dugu sarreretan. Listu tantak barreiatzea ekiditeko, jaunartzea maskaragaz eta "kristoren gorputza" esan barik egingo dugu. Bakea elkarri emateko keinua beste batez ordezkatzeko dugu. Diru-bilketa ez dugu ohiko moduan egingo. Irteeran ipiniko den ontzi batera bota daiteke dirua. Eta adinekoei lasaitasunerako deia egin gura diet. Ez dute etorri beharrik.

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

saltsan

MAKALLAU
saltsan

saltsan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN KATERIN
zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako, **telefonoz**
edo **whatsapp** bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezaitanerezureondoan

Pintaketak egin dituzte EAJren, Herriaren Eskubidearen eta PSE-EEren egoitzen kontra



Joan zen asteburuan Durangoko Herriko Etxea kaltetu zuten. Eguazten gauean Durangoko eta Abadiñoiko batzokiak eta Durangoko Herriaren Eskubidearen eta EAJren lokala.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Azken egunotan EAJren, Herriaren Eskubidearen eta PSE-EEren egoitzen aurkako hainbat pintaketa egin dituzte Durangaldean. Durangoko PSE-EEren Herriko Etxea izan zen kaltetutako lehenengoa. Joan zen asteburuan egin zizkieten

pintaketak. Eguaztenean, ostera, Durangoko batzokian, EAJren lokal batean eta Herriaren Eskubidearen egoitzan egin zituzten pintaketak. Abadiñoiko batzokia ere kaltetuta iratzartu zen. Durangoko EAJk pintaketak "gaitzetsi" zituen eta halako "erasoek bizikidetzaren eta

bakearen aurka" egiten dutela azpimarratu zuen. Mikel Garaizabal Abadiñoiko alkateak bere egin zituen berba horiek, eta elkartasuna adierazi zien Abadiñoiko batzokiko kideei. Herriaren Eskubideak ere pintaketak "arbuatu" zituen eta elkartasuna adierazi zien PSE-EE-

ko eta EAJko kideei. PSE-EEek esan zuen "intoleranteek besteekiko errespetu falta" adierazten jarraitzen dutela "egunero", eta ez dituztela "demokrazia-arauak" onartzen. Edizio hau ixterako, Durangoko eta Abadiñoiko udalek kaleratu barik zituzten adierazpen ofizialak.

Elkarretaratzeak egin dituzte Patxi Ruiz preso iruindarrari babesa emateko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangaldean hainbat mobilizazio egin dira Patxi Ruiz euskal preso iruindarrari babesa emateko. Gazte Koordinadora Sozialistak deituta, manifestariak Santa Ana plazan batu dira asteon. Astelehenean hasi zituzten elkarretaratzeak, eta hurrengo egunetan ere mobilizazioak egiten jarraitu dute. Protestara deitu duen beste eragileetariko bat LAB sindikatua izan da. Martitzenean egin zuen mobilizazioa. Antolatzaile batak zein besteak, babes neurriak hartuta egin dute protesta.

Patxi Ruiz presoak joan zen aste hasieran hasi zuen gose eta egarri greba. Amnistiaren aldeko mugimenduak dioenez, presoaren eskubideak urratzen ari direlako eta osasunerako babes neurririk ematen ez zaialako ekin dio Ruizek grebari. Murtzia II espetxean dago preso iruindarra. Presondegiko funtzionarioek emandako tratua salatu zuen grebari ekin aurreko egunetan.

"Zabortegiaren funtzionamenduan hutsune inportanteak" zeudela pentsatzeko arrazoiak daudela dio Europako Batzordeak

Europako Batzordeko Ingurumen komisarioak iragarri du ikerketa bat hasiko duela Eitzagan gertatutakoa argitzeko

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Eitzagako hondamendiaz "kezkatuta", Europako Batzordeak iragarri du ikerketa bat hasiko duela gertatutakoa argitzeko. Ingurumenaren, Ozeanoen eta Arrantzaren Europako komisarioak aurreratu du hori, Virginijus Sinkevicius lituaniarra. Unidas Podemos, PP eta Ciudadanos taldeetako europarlamentariak Eitzagan gertatutakoaren informazioa helarazi diote Sinkeviciusi, eta azken honek ondorioztatu du "ageriko" zantzuak daudela "zabortegiaren funtzionamenduan hutsune inportanteak" zeudela pentsatzeko.

Ez hori bakarrik. Komisarioak ohartarazi du Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako Estatuako agintarien ardura zela gertaturikoa ikertzea, eta horrenbestez organo bi horiei zegokiela gertatzen ari zena "detektatu, behatu, eta, azkenik, zigortzea". Bruselak ikerketa hasiko du eta adierazi du Espainiako Estatuako agintariekin hartu-emanetan ipiniko dela. Sinkevicius komisa-

rioak gaineratu du lurriari edo ingurune naturalari eragindako "kalte garrantzitsuak" egon daitezkeela, eta, horrenbestez, "operadore arduradunari exijitu" dakiokela kalteak leheneratzea eta horien "kostu guztiak" bere gain hartzea.

Bestalde, komisarioak gogora ekarri du Europar Batasuneko kide diren estatuak derrigortuta daudela herritarrei "berehalako" informazioa ematera gertakariak osasunerako edo ingurumenerako "berehalako mehatxua" dakarren kasuetan.

100 egun

Otsailaren 6an amildu zen Zaldibarko Verter Recycling zabortegia. 100 egun daramatzate desagertuta hango langileak ziren Alberto Sololuzek eta Joaquin Beltranek. Zaldibar Argitu plataformak deituta, elkarretaratzeak eta lore-eskaintzak egin zituzten joan zen astean. "Langileak topatu arte, gure osasunaren eta bizitzaren defentsan, eta erantzukizun guztiak argitu arte"



Maskarak jantzita eta segurtasun distantziak mantenduta egin zuten kontzentrazioa Zaldibarren, joan zen astean.

"Egia zor digute. Herritarrok informazioa gura dugu; zuzena, zehatza eta fidagarria"

lanean jarraituko duela iragarri zuen plataformak.

Agintariengana ere zuzendu zen plataforma. "Egia zor digute. Herritarrok informazioa gura dugu; zuzena, zehatza eta fidagarria", azaldu zuten ohar batean. "Enpresak berak eta Jaurlearitzak dituen

erantzukizun zehatzak argitu behar dira eta informazio hori publikoa izan behar dela uste dugu", esan zuten. Alberto Sololuzek eta Joaquin Beltran topatzea "lehentasunezko gaia" dela eta horretarako "beharrezko baliabideak" ipintzea eskatu zuten.



ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



Ziortza Isasi Cristobal
Eneicat taldeko
txirrindularia

Elorrio | 1995

“Auto bat ni harrapatzen ahalegindu zen eta gidariak etxera joateko oihukatzen zidan”

Ziortza Isasik aurtengo denboraldian aurrerapauso bat ematea zuen helburu. Elorriarrak aitortu duenez, denboraldiari berrekinez gero helburua betetzen ahaleginduko da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ziortza Isasi elorriarrak hobera egin du urterik urtera. Aurten, aurrerapauso bat ematea zuen helburu.

Otsail hasieran eman zenien hasiera errepideko denboraldiari, Valentzia-ko Astean, eta eroriko gogorra izan zenuen. Ostean, koronabirusa heldu zen. Urte hasiera gogorra izan da.

Eroriko gogorra izan nuen, bai, eta medikuek apiril-maiatz ingurura arte geldi egon beharko nuela esaten zidaten. Lesio gogorra nuen bizkarrean, eta esaten zidaten denbora beharko nuela hori osatzeko. Hile batzuetan ezingo nintzela lehiatu esan zidaten, baina entrenatzen jarraitu ahalko nuela. Horren ondoren, koronabirusaren kontuagaz hasi ginen, eta denak etxean sartu gintuzten.

Zelakoak izan ziren zuretzat hasierako egunak?

Ez nuen inondik inora pentsatzen horrelakorik gertatuko zenik, eta neure buruari esaten nion aste biko kontua izango zela. Baina kontua luzatzen zihoala ikusi nuen gero, eta oso txarto pasatu nuen. Antsietate apur bat izan nuen.

Fisikoki zelan harrapatu zintuzten erorikoak eta COVID-19ak?

Ondo nengoen, baina ez ehuneko ehunean. Jausi nintzenez, esaterako, aurrean nindoan, onenekin. Beraz, hau guzti hau niretzat beste denboraldi-aurre bat egitea lez izan da. Hasieran, forma ez galtzeko entrenatzen ginen; orain, ostera, lasterketaren bat dugunerako prestatzen gabiltza.

Esan dizute noiz itzuliko zareten lasterketetara?

Zurumurru asko daude. Esan digutenagaitik, printzipioz uztail amaieran edo abuztu hasieran hasi gaitezke lehiaketetan. Baina ezer segururik ez dakigu eta entrenatzaileek lasai hartzeko esaten digute. Aurten denerik pasatu daiteke eta baliteke denboraldia berriro ez hastea.

Bestalde, nik modalitate bi uzartzen ditudanez, errepidea eta pista, baliteke urte amaieran denboraldi biek bat egitea. Azkenean, errepidekoa abuztuan hasten bada eta azarora arte luzatu, pistakoagaz bat egingo du, sasoi horretarako pistakoa hasi daiteke eta. Baina, bueno, ikusi egin beharko da ea zer gertatzen den.

Gogorra izango da helburu jakin bat barik entrenatzen hastea.

Aurre-denboraldi bat egiten gabiltza, ordu asko egiten ditugu bizikleta gainean eta mendiko bizikletagaz ere bagabiltza. Azkenean, forma ez galtzea da orain helburua. Baita lasterketen berri dugun momentuan entrenamendu gogorretarako eta serieak egiteko prestatuta egotea ere.

la hile bitan kirolariek etxean entrenatu behar izan duzue. Arrabola albo batera uzteko irrikaz egongo zinen.

Bai, baina, egia esan, nahiko ondo eraman dut arrabolaren kontua. Entrenamendu ezberdinak egin ditut arrabolan, eta, gainera, lasterketa bertualetan ere parte hartu dut. Guk kirolariok zainetan darماغu lehiatzea, eta aitortu behar dut lasterketa birtual hauetan ere izugarri pikatu naizela. Lasterketa horiek ere bizi nituen, eta etxean hainbatetan ibili naiz zarataka.

Hala ere, errepidera irten nuen lehenengo eguna izugarria izan zen. Herrian eta ordu tarte batean bakarrik irteteko aukera genuen arren, mundiala izan zen. Jendeagaz gurutzatea, berriro arnasa hartzea, ikaragarria izan zen.

O fasera igaro ginenetik, goi mailako kirolariek entrenatzeko aukera duzue. Zelan joan dira hasierako egunak errepidean?

Hasieran oso txarto pasatu nuen. Auto bat ni harrapatzen ahalegindu zen, eta etxera joateko oihukatzen zidan gidariak. Biribilgune batean izan zen, Abadiñon, Hostal San Blasekoan hain zuzen ere. Amari esaten nion ertzainek gelditzea baino beldur gehiago ematen zidatela jendeak izan zitzakeen erreazioek.

“**Orain denboraldi-aurre bat egiten gabiltza; ordu asko egiten ditugu bizikleta gainean**”

Azkenean ez dakigu-eta jendeari honek guzti honek zelan eragin dion. Horrez gainera, errepideak ere erdi hutsik zeudenez, autoak oso bizkor zebiltzan.

Orain, ostera, faseek eta asteek aurrera egin dutenean, jende gehiagok irten dezake askatasun handiagor errepidera, eta lasaiago nabil. Orain txirrindulariak gurutzatzen dituzu errepidean, eta horrek poza ematen du.

Honen guztiaren aurretik, zer helburu zenituen ipinita?

Ikuspegi altuak nituen. Momentu honetan Eneicat taldean nago, eta salto bat eman eta beste talde batzuek ere hor nagoela ikustea zen nire helburua. Oso gustura nago taldean, baina kalitatezko pauso bat eman gura nuen. Gainera, aurten Patxi Vilak eta Carlos Jimenezek daramatzate gure entrenamenduak, eta posible ikusten nuen pauso hori ematea.

Eta orain, zer helburu dituzu?

Helburuak lehengoak dira. Lehiatzeko hile bi baditugu, zenbat balio dudan erakutsi gura dut denbora horretan. Bizikletaren aldeko apustua egin dut eta ikusi egin beharko da ea zortea dudan. Baina badakit gauzak ez direla errazak izango. Hala ere, argi dut dena emango dudala aurrerapausoa emateko.

Gerediaga elkarteak antzinako eskola argazkien eta materialen bilketa egiteko laguntza eskatu die herritarrei

Batutako materialagaz erakusketa ibiltari bat egingo dute. Udazken alderako prest izatea gura dute, betiere osasun egoerak ahalbidetzen badu



Divina Loizatek Gerediaga elkarteari utzitako argazkia (ezkerrean). Gerediaga elkartearen argazki bat (eskuman).

ONDAREA • EKAITZ HERRERA

Gerediaga elkarteak saso bateko eskola materiala eta argazkiak batzen hasi da. Etxean halakorik izanez gero, elkar-teagaz hartu-emanetan ipintze-ko eskatu die herritarrei. Bildu-

tako materialagaz, Gerediagak erakusketa ibiltari bat egin gura du. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan antolatuko du erakusketa, udazken partean, betiere osasun egoerak ahalbidetzen badu.

Gerediagak bilatzen dituen argazki eta materialak hauek dira: eskola giroa erakusten duten argazkiak (70eko hamarkadakoak eta atzeragokoak); eskolan erabiltzen ziren liburuak, ariketa-koadernoak, arkatzak,

estutxeak, motxilak, poltsak, eskolako amantalak, batak, uniformeak; ofizio batean irakaskuntzari lotutako materiala (ofizio-eskoletan erabiltzen zirenak) eta gaiagaz lotutako beste edozein ere bai.

Laguntasuna eskaini gura duenak eta informazio gehiago behar duenak aukera bi ditu: gerediaga@gerediaga.eus helbide elektronikora idatzi dezake edo 94 681 80 66 telefono zenbakira deitu.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



Ate Irekiak Online

Maiatzak 25 - 26 -27

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh • onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683



2020-2021

Go Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Zergatik aukeratu zenuen Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Go Mailako Zikloak?

Ingeniaritza egitea ez nuen argi ikusi eta zikloa egitea erabaki nuen. Gainera, Marrazketa Teknikoa nuen gustuko eta ziklo hau iruditu zitzaidan osatuena.

Zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Kuadrillakoak ere hemen ikasten ari ziren eta oso gustura zeuden. Hainbat lekutan izan nintzen eta hemen ikusten ziren giroa eta baliabideak erakargarriak iruditu zitzaizkidan. Ate Irekietara etorri nintzean, hemengo irakasleek oso ondo tratatu ninduten.

Nolakoa izan da zure esperientzia DUALean ?

Oso ona. DUALaren aldeko apustua egin nuen eta horrela aritu nintzen ia ziklo guztian zehar. Gainera, lana enpresentzako proiektuetan egiten nuen eta nahiko dinamikoa iruditzen zitzaidan, une oro gauza berriak egiten. Orain ere horrela aritzen naiz, gauza berriak eginez. Hori oso gogoko dut.

Eta orain, bukatu ondoren, zertan lan egiten duzu?

Arlo berean jarraitzen dut: diseinutik abiatuta, tresnak eta makinak eraiki eta funtzionamenduan jartzen ditut. Egia esan, orain beste bekadun batzuek egindako diseinuak zuzendu, inplifikatu... egiten ditut. Inoiz tokatzen zait baita ere zeozer mekanizatu beharra, edo azken konponketak eta egokitzapenak egin beharra muntaiarako.


Ez hori bakarrik, orain arte asko landu ditut metalak; baina, orain, fabrikazio aditiboarekin eta 3D inprimagailuekin, plastikotan ere diseinatzen dut eta plastiko desberdinekin.

Ikasitakoa lanean erabiltzen al duzu?

Ba, ikasitako guztia erabiltzeko aukera izan dut. Moldeak diseinatzea ere tokatu zait, metaletarako, plastikoetarako zein konpostuetarako. Inoiz, kalkulu azkarrak ere egin behar ditut elementuren bat, ardatza, habea, dimentsionatzeko.

Uste duzu ikasi zenuen Zikloa gomendatzeko modukoa dela?

Bai horixe, eta MGEPen gainera, baliabide asko eta onak daudenez, taldeak txikiak dira eta irakasleak oso gertu dauzkazu. Erronken bidez, proiektua garatzean gelan ikasitakoa lotzen duzu eta zenbait gauza hobeto ikasten dituzu. DUALean aritzeko, gainera, aukera handiak dauzkazu hemen.



Julen Maskariano Manzano - Atxondo

AHTaren lanak direla eta, Abadiñoko Mendiola auzoko Mendilibar-erdikoa baserria bota zuten joan zen astean

Hilaren 14an eraitsi zuten baserria, 500 urteko aztarnak izan dituen, Abiadura Handiko Trena egiteko. ANBOTOk familiagaz berba egin du



Aurreko asteko barikuan bota zuten baserria.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Joan zen barikuan, maiatzaren 14an, hasi ziren botatzen Abadiño-ko Mendilibar-erdikoa baserria, AHTaren lanak direla eta. Abadiño-ko Mendilibar-erdikoa baserrian orain 55 urte jaio zen Roberto Arteagak ANBOTOrri aitortu zionez, jaiotetxea botatzen hasi zirela ja-

kin zuenean "inpotentzia handia" sentitu zuen. Arteagak barikuan bertan izan zuen albistearen berri. "Kasualitatez handik pasatu nintzen eguenean", dio. "Bagenekien noizbait botako zutela, egun hau ailegatuko zela. Atxondon gertatzen dabilena ere irakurri dugu egunotan, eta pentsatu dut halako

zerbait etorri zitekeela. Izan ere, hauxe zen Abadiñon egitea falta zen azken tarteetariko bat", azaldu du Arteagak.

Orain hamar urte baino gehiago izan zituzten desjabetze prozesuak. "Proiektua bertatik joateko zela azaldu ziguten, eta alegazioak aurkeztu genituen. Zati bat

desjabetu zuten eta gauza bera egin zuten inguruko beste hainbat lurerekin. Beharbada jende batek pentsatuko du hau guztia pisu bateko etxebizitzaz aldatuta konpondu daitekeela. Niretzat ez da horrela", esan du Arteagak. Mendilibar-erdikoa baserria hutsik egon da azken hileetan. Ez

zen inor bizi. Arteagaren ama da han bizi izandako azkena.

500 urteren ondoren

Arteagak baserriaren ondare historikoa nabarmendu du. "Gasteizko enpresa bat baserriaren balioa aztertzen aritu da. Ikerketa bat egin zuen, eta, ikerketa horren arabera, 500 bat urte ditu etxeak. Faseetan aldatuz joandako etxea da, baina bere lehengo aztarnak orain dela 500 urte inguruakoak dira", azaldu du.

Orain hamar urte baino gehiago izan zituzten desjabetze prozesuak Mendilibar-erdikoan

Abadiñoko Udalak herriko leku izenen toponimia mapa argitaratu zuen 2011n. Argitalpen horren arabera, 'Mendilibar (Artzeaga)' da baserriaren berezko izena. Hango familiako kideek, baina, beti izendatu izan dute 'Mendilibar-erdikoa'. "Guretzat beti izan da Mendilibar-erdikoa", dio Roberto Arteagak.

Konfinamendua indarrean dela, AHTaren lanak aurrera doaz Durangaldean. Dela 'Mendilibar (Artzeaga)' edo dela 'Mendilibar-erdikoa', aurrerantzean baserri bat gutxiago izango da Abadiñon.

Domekan manifestazioa egingo dute Atxondon, AHTrik ez dutela gura aldarrikatzeko

Manifestazioa 12:30ean hasiko da eta segurtasun neurri guztiekin egingo dutela jakinarazi dute antolatzaileek

ATXONDO • J.D./M.Z.

Atxondon aurrera doaz AHTa egiteko lanak. Orain astebete, esaterako, Maisuen etxea eraitsi zuten lanen barruan. "Gure oroitzapenak batzen zituen etxe bat bota dute. Zertarako? Herri honetan gura ez dugun munstro bat egiteko. Ez dugu AHTrik gura, ez dugu gure herrian hormigoizko munstrorik gura, ez dugu gure berdeguneak, gure ametsak eta gure oroitzapenak apurtuko dituen ezer herrian eduki gura", salatu dute platafor-


mako kideek. Horren aurrean, Atxondoko AHTrik Ez plataformako kideek manifestazio bat egitea erabaki dute. Domekan izango da, 12:30ean, Apatamonasterioko plazan irtenda.

Segurtasun neurriekin

Atxondoko AHTrik Ez plataformako kideek iragarri dutenez, maiatzaren 24ko manifestazioa segurtasun neurri guztiekin egingo dute, eta ekimenagaz bat egiteko deia egin diete herritarrei.



Maisuen etxea zegoen lekuan hainbat herritarrek talde argakia atera zuten manifestazioa iragartzeko.



Botikak

BARIKUA, 22 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 23 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - ELORRIO

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - ABADIÑO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 24 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 25 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 26 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 27 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 28 - 09:00-09:00

MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak



Zorionak, Txatxu! Trañako Ciudadanos talde txit agurgarriak merezi duzun festa egingo dizu dena bukatutakoan. Bitartean, hartu maskarilla bidez emandako muxua! Patxo!



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, Ekaitz! Zu be aurrerutz, e! la nozko merendola bat, normaltasun berrian bada ere! Aste ona pasau!

Eguraldia

ZAPATUA 16° / 12° ☁

DOMEKA 20° / 11° ☁

ASTELEHENA 29° / 14° ☀

MARTITZENA 27° / 18° ☀

EGUAZTENA 30° / 17° ☀

EGUENA 28° / 20° ☀

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

Salmenta telematikoa
Eskatutako edozein liburu edo disko ekartzen ahaleginduko gara, eta zuon etxeetara bidaliko dugu.

Eskaera hiru erataraino egin dezakezu:
e-postaz: info@hitzliburudenda.com
WhatsApp-ez: 686 214 964
Telefonoz: 94 681 0776
(8:00-tik 14:00-tara)

Ordainketa bi erataraino egin dezakezu:
Banku-transferentzia bidez.
BIZUM bidez.

Bidalketa gastuak 4,90 € izango dira, hala ere tarifa honek fardelaren tamainaren eta pisuaren arabera aldaketa izan dezake



BIBLIOTEKAKO EKINTZAK ONLINE
FAMILIA, HAUR-GAZTE ETA HELDUENTZAT

Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

IPUIN KONTALARIA
MAIATZAK 22 19:00
"DANTZA EGITEKO IPUINAK"
IKUSTEKO: <https://labur.eus/v6pvz>


IPUIN KONTALARIA
Helduentzat
MAIATZAK 29
19:00 (Euskaraz)
"Maidar Galartza"
IKUSTEKO: <https://www.pscp.tv/iurretaBiblioteka> (ZUZENEAN)

PARTE HARTZEKO: biblioteka@iurreta.eus




PLAZAN BAZAN 7

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiburri)



Engainariak

Zati hauetatik erdiak goiko irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu bost onak eta bost txarrak.



MEZUA

Poto barruko erlea oso pozik dagoela ematen du. Zer dio? Ipini iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu.





ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org



Oihane Alacano Loiti
'El Conquistador del Caribe' saioan parte hartu du
Durango | 1991



“Konkistatzaile batek bera izan behar duela konturatu naiz, eta buruz indartsua”

Oihane Alacano 'El Conquistador del Caribe' telebista saioan parte hartu du; 18 aste egin ditu kaleratu duten arte

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Azken ahalegina izan behar zuen eta asmatu zuen. Durangarrak Karibera joateko txartela lortu zuen. Konfinamenduaren eraginez, han bizitako uneak "bere osotasunean" gozatzeko aukera galdu duela uste du. Esperientzia gazi-gozoa izan du.

Hirugarrenean lortu duzu 'El Conquistador del Caribe'-n parte hartzea.

Bai, 18 bat urte gaz aurkeztu nintzen lehenengoz, ero-eroan, eta urte gutxira berriro ahalegindu nintzen. Hamar urteren ondoren, lortu dut. Txikitatik ikusi dut saioa eta betiko ametsa izan dut parte hartzea. Kirolari moduan ere beti erakarri nau.

Gosea, nekea, intsektuak, probak... ez du ematen oso plan erakargarria.

Ez. Askotan pentsatu dut neuk ere, nork esan dit niri honetan sartzeko! Kirolari sutsua izan naiz beti eta nire gorputza zein puntutaraino eramanez jakin gura nuen,

zenbateraino eusteko gai nintzen. Oso zaila da horrelako esperientzia bat norbere kabuz bizitzea, horrelako kirol probak egitea Patagonia edo Karibea lako parajeetan.

Zelako esperientzia izan da?

Oso gogorra. Etxetik ikustea edo han egotea oso desberdina da. Aurtengo edizioa ezustekoz beteta dago, gainera. Ez dakizu nondik joango den kontua, eta psikologikoki oso gogorra da. Jan barik eta lorik egin barik jarraian egin ditugun egunak izan dira gogorrenak. Baina sortu dugun familia izan da esperientzia honek eman didan onena. Egunero berba egiten dugu. Norberaren gorputza zer egiteko gai den ikustea ere polita eta harro egoteko modukoa da.

Irabazleen artean ikusten zenuen zeure burua. Zelan prestatu zara?

Crossfit-a egin dut batez ere, eta itsasoan igerian ibili naiz. Uretan eta sokekin ondo moldatzea ezinbestekoa da. Baina, sokekin

trebatzeko (tirolina, yumar...) aukera gutxi izan dut. Psikologikoki prestatuta joan behar da, eta elikadurara egokituta, etorriko denari aurre egiteko.

“

Telebistan nitaz eman duten irudiagaz oso txarto pasatu dut; hori ez naiz ni”

—

Etxera etorrita, zer izan da gatxena?

Egunerokora bueltatzea. Burbuila batean lez egon gara han, horretaz jabetu barik. Mugikorra isiotu eta antsietate puntu bat sortu zitzaidan, zer jantzi erabakitzeak estresatzen ninduen, tabernan sortzen diren zaratek ere bai, eta edozein usain antzematen nuen. Elikadurari dagokionez eta fisiologikoki ere

gogorra da buelta. Karibetik etorrita, astebetean sei kilo hartu nituen. Tripakadak hartzen nituen. 3-4 hile behar izan ditut neure onera bueltatzeko.

Euskal Herrira etorrita, zer da egin zenuen lehenengoa?

Dutxatu eta infusio bat hartu, txokolatzeko gailutekin. Liburu bat ere hartu nuen, eta orriak usaindu. Etxeko usaina hartu gura nuen.

Aukeratu momentu bat.

Kanpamentu aberatsean, denok elkarregaz itsasoan, biluzik, gargaardoekin, barrezka eta abesten.

Zer behar du konkistatzaile batek?

Aurkako sentimenduak sortzen dizkit. Uste nuen diziplinaduna eta konstantea izan behar zuela. Bera izan behar duela konturatu naiz eta, batez ere, buruz indartsua.

Errepikatuko zenuke?

Han bizitako esperientzia bai, baina 'reality'-a bera ez. Telebistan nitaz eman duten irudiagaz oso txarto pasatu dut; hori ez naiz ni.

Lauhortza

Bixente Aizpurua
Irakaslea



Kontraesan gehiago

Telebista piztu, egunkaria zabaldu, jendearen komentarioak entzun eta denak datoz bat; koronabirusa gora eta koronabirusa behera. Gaixotasun hau dela-eta nazio gehienak guztiz paralizatuta daude edo egon dira. Bertan behera utzi dira kongresuak, kirol ekintzak; lantegiak eta eskolak itxi dituzte, joan-etorriak debekatu, etab. Denak mugitu dira kalte honi aurre egiteko, baina zer gertatzen da heriotza gehiago sortzen dituzten gerra eta goseteekin? Ume eta emakumeen aurkako bortxakeria, heriotza eta tratu txarrekin? Edo pobrezia dela-eta kalean hiltzen direnekin? Edo kutsadurak sortzen dituen gaixotasun eta heriotzekin? Akaso gertakizun horiek ez dute garrantzirik? Ea gaixotasun hau menperatzen denean baliabide berdinak edo gehiago jartzen diren beste egoera tamalgarri guztien eraginak murriztu edo geldiarazteko.

Administrazioak gero eta laguntza gehiago ematen ditu nekazari eta abeltzain gazteek baserri zaharren erreleboa har dezaten, baina, gero, jarduera honetarako lur egokienak industria guneez, etxebizitza edo errepide berriak egiteko bideratzen ditu. Karamelua eman, baina dastatzeko aukera kendu.

Hitzez, nazio gehienek klima aldatetari aurre egiteko beharrik ez ikusten dute, baina ekintzak bideratu behar direnean ez dira batera ausartak. Dena herritarren eskuetan uzten dute eta belarria berotzen digute: birziklatu, berreskuratu, murriztu, zentzudun kontsumoa egin... Eta gero ez dago kontrolik enpresen isurketetan, zabortegietan... Kontrol gabezia horren ondorioak herritarrok pairatzen ditugu: asma, alergiak, minbizia eta zenbait kalte gehiago.

Ea hausnartzen dugun hau guztia eta kontraesan horiek eta beste asko “zuzenesanak” bihurtzen diren. Bestela, aitak esaten duena: “Pater noster eta zerura laster”.

ALKIMAX
Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Af 100 karcher
aire-arazgailua



LASTER GURE DENDAN



Karcher-sc3 lurrin
bidezko garbigailua



Ozono-sorgailua